

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOA/ AEI

Ikerketaren sendotzea 2022

Deialdiari buruzko informazio osoa [hemen](#)

Helburua:

Estatuko eta atzerriko ikertzaileen karrera profesionala sendotzea, beren karrera profesionala Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren barruan garatu ahal izan dezaten.

Jarduera finantzagarriak honako hauek dira :

- Jardueraren ikertzaile nagusiaren jakintza-arloan plaza iraunkor bat sortu eta estaltzeko pizgarria, laguntzak irauten duen bitartean.
- I+G+B proiektu propio bat gauzatzea, jardueraren ikertzaile nagusia buru dela.
- Instalazioak eta ekipoak hobetzea, horren barruan sartzen dira espazioak egokitzea, laborategiak berritzea eta ekipamendua hobetzea, jarduketaren ikertzaile nagusiaren ikerketa ildo hasteko edo finkatzeko beharrezkoak direnak.

Laguntza gauatzeko aldia: 2 urte.

AURKIBIDEA:

- JARDUERAREN INAREN BETEKIZUNAK
- JARDUERAREN INAREN EZAUGARRIAK
- BATERAEZINTASUNAK
- ESKABIDEAK AURKEZTEA
- ESKULIBURUAK ETA FAQAK
- HARREMANETARAKO

1. JARDUERAREN INAREN BETEKIZUNAK

- o **Doktore titulua izatea**
- o **Jarduera zientifiko-teknikoa: R3 aldeko ebaluazioa izatea edo I3 ziurtagiria (edo izapidetzen egotea)**
 - R3 ziurtagiria 2021eko abenduaren 22tik aurrera lortu behar izan da.
 - I3 ziurtagiria deialdiaren aurreko edozein unetan lor daiteke; Ikertzaile Nagusiak eskatu badu eta oraindik ez badu lortu, parte har dezake ere bai.
 - Nolanahi ere, deialdia erabakitzen den egunean R3 edo I3 dokumenturik ez badauka, UPV/EHUK eskaerari uko egingo dio.
- o **Erakunde eskatzailearekiko lotura (UPV/EHU)**
UPV/EHUK honako pertsona hauek egindako eskaerak abalatzeko konpromisoa baino ez du hartuko:

	<p>1) finkatze-prozesu batean sartuta daudenak (2022ko abuztuaren 31 baino lehen sailek eskatutako plazak eta lehiaketa-prozesuan daudenak, 2021, 2022 edo 2023ko LEPetan zehaztu daitezkeenak)</p> <p>2) UPV/EHUko plantillako kide izanik 2025-05-02ra arteko indarraldia duen kontratu-harremana dutenak, edo, gutxienez, finkatze-data arte, eta irakasle iraunkorren figura baterako egiaztatuta daudenak</p>
<p>2. JARDUERAREN INAREN EZAUGARRIAK</p>	<p>o Ikertzaile Nagusiak lanpostu ez-iraunkor edo iraunkor bat betetzen du.</p> <p>Ikertzaile Nagusiak lanpostu ez-iraunkor edo iraunkor bat betetzen egon daiteke, baina bigarren kasuan, lanpostuak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2021eko abenduaren 22tik aurrera okupatuta egotea eta aurretik ez izatea beste lanpostu iraunkorrik deialdiaren eskatzaile izan daitezkeen erakundeetako batean (7.3 artikulua). • Lanpostuak lanaldi osoko arduraldia izan behar du. • Lanpostua ezin da egon lotuta kanpoko finantzaketa bati edo laguntza publikoen deialdietatik datorren finantzaketa bati (Zientziaren Legearen 23.Bis artikuluan oinarritutako kontratuen kasua).
<p>3. BATERAEZINTASUNAK :</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaile nagusiak ezingo dira azaldu deialdi honetako eskabide batean baino gehiagotan. • Ramón y Cajal programatik datozen ikertzaileak, baldin eta beren erakundeak dagoeneko jaso badu programa horren esparruan emandako lanpostu iraunkorra sortzeko zuzkidura, ezingo dira jarduketaren Ikertzaile Nagusi gisa agertu. • Bateriaezintasuna dago proiektuan islatzen diren lanorduen kopuruan, baldin eta ordu horiekin eta plan nazionaleko, autonomia-erkidegoetako eta abarretako beste proiektu batzuei egotzitako orduekin urteko orduen muga gainditzen bada. Ikerketako Errektoreordetzak egiaztatuko du muga hori betetzen dela.
<p>4. ESKABIDEAK AURKEZTEA</p>	
<p style="text-align: center;">MINISTERIOAREN EPE BAKARRA</p>	
<p style="text-align: center;">2022ko azaroaren 3tik 2022ko azaroaren 24ko 14:00etara. (Espainiako penintsulako ordua).</p>	
<p style="text-align: center;"> </p>	

EHUren BARNE EPEA

Eskaerak berrikusteko barne-epaia, aurkeztutako eskaeren artean lehentasunak ezartzea, hala badagokio, eta lehenetsitako eskaeren azken sinadura:

- [Aplikazioan](#) aurkeztutako eskaera VRira bidaltzea, ekintzaren Ikertzaile Nagusiak behar bezala sinatuta eta **2022-11-15era arte**.

* R3 irizpideen arabera ebaluazioa gainditu duten edo I3 ziurtagiria duten Ikertzaile Nagusiek eskabidearekin batera bidali beharko dituzte egiaztagirak. Izapidetzen ari badira, eskatu izanaren egiaztagiria bidaliko dute.

- UPV/EHUK abalatuko dituen eskaerak lehenetsia: **2022-11-16tik 2021-11-21era**.
- Lehenetsitako eskaeren UPV/EHUren sinadura aplikazioan: **2022-11-21etik 2022-11-24ra (14:00etan)**.
- UPV/EHUK sinatzen (bermatzen) ez dituen deialdian aurkeztutako eskabideak aurkeztu gabekotzat joko dira.

Nola aurkezten dut nire eskabidea?

- **AURKEZPEN FORMALA:**

Ikertzaile nagusiak (IN) beteko du formularioa eskaera [aplikazioaren bidez](#), eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa erantsiko du. Dokumentua osatu eta baliozkotu ondoren, INak dokumentua inprimatu eta sinatu beharko du. Proposamena sinatuta, legezko ordezkariaren (VRI) esku jarriko du, eta hark sinatu eta erregistratuko du elektronikoki eskaera.

INak bete eta baliozkotu duen eskabide-inprimakia eskuratu ahal izango du erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak. Dokumentazio guztia zuzena bada, erakundearen legezko ordezkariak sinatu egingo du, eta aplikazioaren bidez erregistratuko du.

GARRANTZITSUA:

INak honako dokumentazio hau erantsi beharko du nahitaez eskabide-formulario elektronikoan:

a) MEMORIA ZIENTIFIKO TEKNIKOA. Gehienez 10 orrialde.

b) INaren CVA. Ingelesean (gomendatua) edo gaztelaniaz.

Halaber, hala dagokionean, dokumentazio gehigarria erantsiko da 13.3 artikuluan jasotako kasuetan.

5. ESKULIBURUAK ETA FAQak

- Deialdiari buruzko ohiko galderak: [esteka](#):
- Eskabideak aurkezteko eskuliburua: [esteka](#)
- CVA betetzeko jarraibideak: [esteka](#)
- Proiektuen memoria zientifiko teknikoa betetzeko jarraibideak: [esteka](#)

6. HARREMANETARAKO

UPV/EHU

Convocatorias.dgi@ehu.eus/ 946018008

AEI

cns.solicitud@aei.gob.es